



UEU

Urteko Txostena
2018





UEU

Urteko Txostena

2018



- 7 SARRERA**
- Euskal Unibertsitatearen bidean
 - UEU legebiltzarrean
 - UEU, Euskaraldiarekin bat
 - UEUren egutegi publikoa
 - Instagram kontua ireki dugu
 - UEU Elhuyar Zientzia azokarekin bat
 - Sailburuen biltzarra
- 9 JARDUERA AKADEMIKOA**
- “Euskaltzaletasuna eta feminismoa” ikastaroa Gasteizen
 - Udaberriko ikastaroak
 - UEUk 14 ikastaro antolatu ditu Nafarroako hezkuntza departamentuarekin elkarlanean
 - Informatikari euskaldunen 11. Bilkura eta euskararen Internet eguna
 - Udako ikastaroak: #elkarekin
 - “Euskara batuaren helduaroa” jardunaldia
 - UEUren ikasturtearen hasiera
 - UEUk 3 berezko titulu sustatu ditu 2018/2019 ikasturtean
 - Udazkeneko ikastaroak
 - “Hizkuntza eskubideak bermatzeko legea” jardunaldia Iruñean
 - “Lurraldea eta hizkuntza. Arnasguneen prebentziotik garapenera” jardunaldia Azpeitian
 - Osasun-zientzietako ikertzaileen III. Topaketak Eibarren
 - Prest_gara programa
 - “Helduen euskalduntze alfabetatzea aurrera begira” glotodidaktika VI. Topaketa bilbon
 - Natur Zientzien III. Topaketa Gasteizen
 - “Hitz adina mintzo” hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa gasteizen
 - IkerGazte 2019 martxan
 - Koldo Mitxelena beka
 - Buletin akademikoa jarri dugu martxan
- 14 ARGITALPENGINTZA**
- 10 Liburu berri argitaratu ditugu
 - Uztaro aldizkaria
 - Aldiri aldizkaria
 - Osagaiz aldizkaria
 - Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsak
 - Buruxkak liburutegi digitala
 - Sarako azokan egon gara
 - Jose Ramon Etxebarriaren omenezko liburua argitaratu dugu
 - Durangoko azoka #53DA
- 17 INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK**
- Artizarra sare soziala jaio da
 - Unibertsitatea.net ataria, azalberrituta
 - TESIKER egitasmoa
 - #TXIOTESIA4 lehiaketa
 - INGUMA datu-basea

Kepa Sarasola zuzendari berria

Otsailean UEUK Batzar Nagusia egin zuen Eibarko Ikastetxe Nagusian. Bertan, Talde Eragileak aurkeztutako 2017ko balorazioa eta 2018ko egitasmoa onartu ziren. Era berean, batzarrak zuzendari berria aukeratu zuen. Datozen urteetan Kepa Sarasola Gabiola Informatika Saileko kidea izango da UEUko zuzendaria.

Sarrera

Euskal Unibertsitatearen bidean

UEUren helburu estrategikoa da Euskal Unibertsitate euskalduna, nazionala eta herrikoia sortzea. Lan horretan Euskal Unibertsitatearen Elkartearen laguntzaz online unibertsitatearen ildoak landu dugu 2018an, bai Eusko Jaurlaritzarekin bai UPV/EHUarekin. Ildo honetan, UEU UPV/EHUko Ikastegi Atxiki bilakatzeko prozesuan urrats esanguratsuak eman ditugu. UPV/EHUren barne-egituretan, beharrezko babesa lortu ondoren, tramitaziorako urratsak gainditu ditugu eta Unibertsitate Sailburuordetzaren onespenezarekin Ikastegi Atxikia sortua geratzeko da.

Goi-mailako Online Institutua —GOI.EUS Ikastegi Atxikia— UEUren barnean antolatu da, online unibertsitate-ikasketak euskaraz ere sustatu beharra dagoela ikusi delako. Azken 16 urteotan, UPV/EHUarekin elkarlanean aritu izan gara graduondoko 14 berezko titulu eratu eta emateko. Horrez gain, garatu eta arrakastaz erabili dugu berezko dugun online ikasteko metodo didaktikoa. Graduondoko formazioan euskaraz dauden prestakuntza-gabeziak aztertu ondoren, Ikastegi Atxikia eratzea proposatu da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra euskaraz eta online emateko. Proiektu honek UPV/EHUK duen eskaintza osatzeko asmoa du, baita Europako esparruan goi-mailako ikasketen etengabeko berrikuntza bultzatzeko ere. Jarduera akademikoak 2020/2021 ikasturtean hasiko direla aurreikusten dugu.

UEU legebiltzarrean

Irailean UEUko zuzendariak, Kepa Sarasolak, eta Idazkari Nagusiak, Ane Sarasuak, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean UEU aurkeztu zuten. Aurkezpenak interesa piztu zuen eta etorkizunean UEUrekiko babesa areagotzeko baliagarria izatea espero dugu.

UEU, Euskaraldiarekin bat

UEU ekimen horren sustatzailea izan da eta, hori horrela izanik, bazkide guztiei dei egin die egitasmo horretan parte hartzeko, norberaren herrian/hirian. UEUko lantaldeak ere bat egin du ekimenarekin.



UEUren egutegi publikoa

UEU erakunde bizia da. Hainbat proiektu eta egitasmo izaten ditu batera esku artean eta lan hori gehiago ezagutarazteko asmoz, egutegi publiko bat sortu dugu Google Calendarren.

Instagram kontua ireki dugu

Udako ikastaroetan ireki genuen kontu berria Instagram sare sozialean @ueu_orokorra helbidearekin. Bertan UEUko protagonistak aurkituko dituzue.

UEU Elhuyar Zientzia azokarekin bat

UEUtik gure lankidetzak eskaini dugu gazteentzako Elhuyar Zientzia Azoka 2017-2018 egitasmoa indartzeko. Ekimen horretan, 12-18 urte bitarteko gazteek, talde txikitan, ikerketa-proiektu bat edo proiektu teknologiko bat garatu dute ikasturtean zehar, eta apirilean Bilboko Plaza Barrian egin den Zientzia Azokan aurkeztu dute. Gure bazkideak eta lankideak ekimenean parte hartzera animatu ditugu. Horretaz gain, hainbat gazte-talderi elkarriketak egin dizkiegu eta sari bat ere eman dugu.

Sailburuen biltzarra

Azaroan egin dugu Sailburuen Biltzarra. Bertan, UEUko sailen eta egituraren arteko koordinazioa landu, esku artean dauden proiektuak eztabaidatu eta sailen arteko harremanak sustatu ditugu.



Jarduera akademikoa

“Euskaltzaletasuna eta feminismoa” ikastaroa Gasteizen

JAKINek, Oihaneder Euskararen Etxeak eta UEUK “Euskaltzaletasuna eta feminismoa: zer ikasi, hura elikatu” ikastaroa antolatu dugu Gasteizen. Euskara eta generoa menderakuntzaren alabak izaki, ahalduzko eta boteretzeko prozesu berean txirikordatzaren diren bi bide dira. Bi izate, praktika eta prozesu horiek non gurutzatzen diren, zer ezaugarri partekatzen dituzten, bata bestetik zer ikas lezakeen eta bien arteko aliantzak zer esparru emankor zabaltzen digun mahai gainean jartzea da ikastaro honen helburua. Ikastaroan 100 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

Udaberriko ikastaroak

UEUK otsail eta maiatz bitartean 15 ikastaro eskaini ditu udaberriko eskaintzaren barruan, Eibarren, Iruñean eta online.

- “Tribuaren berbak” sekuentzia didaktikoak gelan erabiltzeko jarraibideak.
- Arazo-egoeratik proiektura. Proiektu bidezko metodologiak sustatzen.
- Moodle-ren gamifikazioa eta ikasleak motibatzen sormenezko hainbat erabilera.
- Programazioa denontzat: Python ikasi praktikaren bidez.

Ikasgelako eskaintza

- Harreman harmonikoak izateko komunikazio trebetasunak. Zure bizitza aberasteko gakoak. **Iruñea**
- Gatazken ebazpena pedagogia sistemikotik abiatuta. **Iruñea**
- Heziketa integrala: haurrekiko harreman osasuntsuak sustatuz. **Iruñea**
- Errealitateak kontatzeko manierak. **Iruñea**
- Hizkuntza-praktika ekologikoak haurren hezkuntzan. **Iruñea**
- Euskal paisaien argazkilaritzako ikastaroa. **Eibar**

- Askatasunean hazi, hezi eta bizi. **Eibar**
- Ez utzi biharko gaur egin dezakeguna: zure produktibitatea hobetzeko metodo eta tresnak. **Eibar**
- Haurren autoestimua ezagutu eta garatzeko erremintak. **Iruñea**
- Agroekologia. Tokiko garapen integrala. **Eibar**
- Hizkera argia administrazio elektronikoaren garaian. **Eibar**

UEUK 14 ikastaro antolatu ditu Nafarroako hezkuntza departamentuarekin elkarlanean

Udaberria

- Adimen gaitasun handiko ikasleei erantzuna eskolan: eguneroko erronka.
- Idazkera kolaboratiboa konstruktibismoan; hizkuntza idatziaren garapena eskolatzearen lehen urteetan.
- Adimen emozionala ikasgelan.

Udako ikastaroak

- Errealitatea kontatzeko manierak.
- Lankidetzan oinarritutako idazketa hizkuntzak barneratzeko.
- Ipuin parekideak sortzen.

Udazkena

- Aniztasuna landuz, LGTBIfobia gainditu.
- Gradu bukaerako lana eta lan akademikoetan trebatzen.
- Bileren dinamizaziorako teknikak.
- Psikomotrizitatea, mugimendu eta jolas librea.
- Proiektu bidezko metodologiak.
- Adimen Anizkunen teoria: begirada aldaketa.
- Itzulpengintzaren hasi-masiak irakasleentzat: hainbat baliabide eta gako.
- Haur eta gazteen transexualitatea ulertzeko gakoak.

Informatikari euskaldunen 11. Bilkura eta euskararen Internet eguna

Maiatzaren 17an Informatikari Euskaldunen Bilkura antolatu du Informatika Sailak Donostian. Oraingoa 11. edizioa izan da eta landu duten gaia "Burujaetza teknologikoa". Teknologia egokiak oinarri izango dira jendarte antolatu eta burujabe bat lortzeko bidean. 150 adituk parte hartu dute bertan. Egun berean Euskarazko Internet Eguna ere ospatu dugu Puntueus Fundazioarekin elkarlanean.



Udako ikastaroak: #elkarekin

2018an UEUK 35 jarduera antolatu ditu udan. Jaso ditugun ikastaro-proposamenak, berriz, ia 100 izan dira. Pasa den urtean bezala, lelo bera aukeratu dugu aurtengo ediziorako, udako ikastaroen filosofia primeran adierazten duelako.

Kepa Sarasola UEUKo zuzendariak hitz hauek esan ditu udakoen aurkezpenean:

XI. Informatikari Euskaldunen Bilkuraren oihartzunak irauten duelarik aurkezten ditugu aurtengo ikastaroak, ELKAR EKIN lelopean berriz ere, nahiz eta zuzendari bezala lehenak izan. UEU ez litzateke posible izango elkarlanik gabe. Gure izaeran dago elkargune izatea, eta udako ikastaroak ere hori islatzen dute. Ikastaro hauek auzolanean antolatzen ditugu pertsona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik ekiten diegu proiektu berriei, jakintza berriei. Eta horregatik, beste urte batez, bere curriculum profesionala zein

pertsonala aberastu nahi duen orok izango du tokia gure udako ikastaroetan.

Azken urteetako partaidetzari eutsi diogu eta 600 parte-hartzaile inguru hurbildu dira Udako Ikastaroetara.

"Euskara batuaren helduaroa" jardunaldia

Udako Ikastaroak Gasteizen abiatu dira, "Euskara Batuaren helduaroa" jardunaldiarekin. Hizkuntzak sortu, garatu, aldatu eta, kasu askotan, desagertzen dira. Zorionez, euskara hizkuntza bizia da. Gaude, euskararen bizitasuna, neurri handian, estandarizazioaren prozesuari zor zaiola, hizkuntza-batasunari, alegia. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), beste hainbatekin batera, euskara batuaren bidegilea izan da, euskara batua eta UEU garaikideak, biak ala biak elkarren arrimuan haziak. Jardunaldiak arrakasta handia izan du eta bertan Jose Ramon Etxebarria maisu handiari bere omenez UEUK argitaratu duen liburua (Bai jauna, bai: fisika euskaraz!) oparitu diogu.

UEUren ikasturtearen hasiera

Irailaren 27an UEUK 2018/2019 ikasturteko irekiera-ekitaldia egin du Eibarren, Ikastetxe Nagusian. Bertan, Kepa Sarasolak, UEUKo zuzendariak, ikasturte honetako helburuak hiru direla adierazi du:

- Unibertsitarioen komunitatea trinkotzea: Baionan 2019ko maiatzan egingo den IkerGazte kongresua, ARTIZARRA aditu euskaldunen sare soziala eta Txiotesiaren 4. edizioa dira horren adibide.
- Jarduera akademikoan sakontzea: berezko tituluak, bizialdi osoko trebakuntza, udako ikastaroak eta eredu pedagogikoaren gizarteratzea.
- Titulazio ofizialak online bideratu: Ikastegi Atxikia abiaraztea.

Hitzaldi nagusia Mari Luz Esteban Galarza irakasleak eskaini du: "Zientzia ikusten topaketa, probokazio eta eraldaketa gisa. Proposamena antropologia feministatik".

UEUk 2 berezko titulu sustatu ditu 2018/2019 ikasturtean

UEUk euskarazko 2 Berezko Titulu sustatu ditu 2018/2019 ikasturtean UPV/EHUren eskaintzaren barne. UEUren ildo estrategiko nagusietako bat da goi-mailako formakuntzaren euskarazko eskaintza sustatzea, euskal gizartearen formazio- eta hizkuntza-beharrei erantzuteko eta Euskal Unibertsitatearen ildo indartzeko asmoz.

- Itzulpengintza eta teknologia (7. edizioa).
- IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan (3. edizioa).

Bigarren graduondoko horren barruan, aurtan, lehen aldiz, bi Aditu Titulu eskaini ditugu, 15 ECTSko iraupenarekin.

Udazkeneko ikastaroak

UEUk irail eta azaro bitartean 23 ikastaro eskaini ditu udazkeneko eskaintzaren barruan, Eibarren, Iruñean eta online.

Online

- Proiektu bidezko metodologiak.
- Moodle-ren gamifikazioa eta ikasleak motibatze sormenezko hainbat erabilera.
- Nola atera zukua sareari gure negozioa ezagutarazteko.
- Programazioa denontzat: Python ikasi praktikaren bidez.
- Adimen-gaitasun handiko ikasleei erantzuna eskolan: eguneroko erronka.
- Lurraldea ulertu eta aztertze beste modu bat. GIS librea eta Geoprosesamendua (QGIS).

Ikasgelakoak

- Aniztasuna landuz, LGTBIfobia gainditu. *Iruñea*
- Hitz Adina Mintzo, hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa. *Gasteiz*
- Gradu bukaerako lana eta lan akademikoetan trebatzen. *Iruñea*
- Norbera. Argazki-autobiografia. *Eibar*

- Bileren dinamizazioarako teknikak. *Iruñea*
- Itzulpengintzaren hasi-masiak irakasleentzat: hainbat baliabide eta gako. *Iruñea*
- Psikomotrizitatea, mugimendu eta jolas librea. *Iruñea*
- Adimen Anizkunen teoria: begirada aldaketa. *Iruñea*
- Ahozko komunikazioa errazteko teknikak. *Eibar*
- Emozioen kudeaketa eta manipulazioa. *Iruñea*
- Hizkera argia administrazio elektronikoaren garaian. *Iruñea*
- Beheko gorputz-adarretako tendinopien diagnostiko eta tratamendua. *Eibar*
- Haur eta gazteen transexualitatea ulertzeko gakoak. *Iruñea*
- PISA azterketako irakurketa probaren analisia eta lanketa-bideak. *Eibar*
- Ez utzi biharko gaur egin dezakeguna: zure produktibitatea hobetzeko metodo eta tresnak. *Eibar*
- Egiletasuna eszenaratzeko moduak: hurbilketa bat literatur kritika feministatik. *Eibar*
- Euskal Komunikazioaren Ekosistema aztertzen: Diziplinarteko Data Sprinta *Eibar*

“Hizkuntza eskubideak bermatzeko legea” jardunaldia Iruñean

Irailaren 29an “Hizkuntza eskubideak bermatzeko Legea” jardunaldia antolatu dugu Iruñeko Kondestablearen Jauregian, Kontseiluaren laguntza eta Euskarabidearen babesarekin. Hizkuntza Eskubideen Babeserako Protokoloan oinarritutako eta Nafarroako herritar guztien eskubideak bermatzeko Lege berria behar dela aldarrikatzeko jardunaldia izan da. Gaur egun ezarria dagoen zonifikazioaren ondorioak alde juridiko batetik aztertu ditu, bai eta ikuspegi historiko juridikoa, arlo administratiboa, soziolinguistikoa eta euskararen garapenerako trabak ere.



“Lurraldea eta hizkuntza. Arnasguneen prebentziotik garapenera” jardunaldia Azpeitian

Urriaren 10ean “Lurraldea eta Hizkuntza. Arnasguneen prebentziotik garapenera” jardunaldia egin dugu Azpeitian, UEMA, Kontseilua, Gaindegia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Azpeitiko Udalarekin elkarlanean. Gaia lantzen duen 4. topaketa honen helburua hau izan da: arnasguneen garapenaren alderdi sozioekonomikoa, soziokulturala eta sozioekologikoa aztertzea, bai eta horien arteko elkarrengatza ere. Horretaz gain, gogoetarako marko bat ezarri da arnasguneen garapen integral eta orekatu baten bidean, eta horretarako ildo estrategikoak eta esku-hartze aukerak ere landu dira.

Osasun-zientzietako ikertzaileen III. Topaketak Eibarren

Urriaren 25ean Osasun Zientzietako Ikertzaileen III. Topaketak antolatu ditugu Eibarren. Helburuak hauek izan dira:

- Osasun Zientzietako ikertzaile euskaldunen lerro zientifikoak aurkeztea.
- Ikertzaile euskaldunen harreman-sarea sendotzea.
- Ikerketa euskaraz egitea bultzatzea.
- Osasun Zientzietan euskarazko produkzioa sustatzea.

Prest_gara programa

Eusko Jaurlaritzaren Prest_Gara programak irakasleen etengabeko prestakuntza lantzen du. UEUK aurten 8 ikastaro eman ditu bertan. Horretarako, urtero deialdia zabaltzen dugu gure sarea baliatuz eta urtetik urtera jasotzen ditugun proposamenak gero eta gehiago dira.

“Helduen euskalduntze alfabetatzea aurrera begira” glotodidaktika VI. Topaketa bilbon

Azaroaren 9 eta 10ean Glotodidaktika VI. Topaketa egin dugu Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hauek izan dira jardunaldien helburuak:



- Biziberritze-prozesuaren egoera aztertzea eta HEA horren barnean kokatzea.
- Joera pedagogiko berriek dakartzaten ondorioak eta eskaintzen dituzten aukerak aztertzea.
- Lan-munduan eragiteko, testuinguruak interpretatu eta egokituta programatzeko aukerak aztertzea.
- Ahozketasunaren garrantzia azpimarratu eta hura lantzeko irizpideak jasotzea.
- IKTek ematen dizkiguten aukerak aztertzea.
- Jarduera arrakastatsu batzuk aztertzea, ondorioak atera ahal izateko.



Natur Zientzien III. Topaketa Gasteizen

Azaroaren 17 eta 18an Natur Zientzien III. Topaketa egin dugu Gasteizko Europa Jauregian, Sinbiosian izenburupean eta Euskal natura taldearekin elkarlanean. Erakundeetako kudeatzaile eta langileak, unibertsitateko ikertzaileak eta natur taldeetako kideak bildu eta nork bere jakintza partekatzeko plaza bihurtu dugu topaketa. Horretarako, Euskal Herriko naturan eta zientzian eragin zuzena duten gaiak landu dira aipatutako hiru ikuspuntuetako ekarpenak kontuan hartuz: lehen sektorearen erronka, arazo eta irtenbideen inguruan eztabaidatu dugu talde txikitik bilduta; ehizak sortutako gatazkak ertz guztietatik aztertu eta adostasunak bilatzeko ariketa egin dugu mahai-inguruan jarrita, eta, azkenik, elkar hobeto ezagutzeko eta landutako gaiei buruz aritzeko zenbait aukera izan ditugu.

“Hitz adina mintzo” hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa gasteizen

Irailean ekin diogu Oihaneder Euskararen Etxeak eta UEUK ziklo honi eta 2019ko apirilean bukatuko da. Hitzaldi hauen helburua da munduko errealitate soziolinguistikoaren perspektiba zabaltzea eta aberastea eta hizkuntza-aniztasuna balioan jarri eta ezagutaraztea. 2018an hiru hitzaldi antolatu ditugu:

- “Nork esan zuen Gasteiz ez dela euskalduna?”. Gemma Sanginés
- 1. hizkuntza: Mapuzugun. Wallmapu Euskal Herria elkarte
- 2. hizkuntza: Maoriera. Imanol Miner (normalizazio-teknikaria)

IkerGazte 2019 martxan

IkerGazte kongresuaren hirugarren edizioa Baionan egingo da 2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29an. Proiektu honen helburua da ikertzaile euskaldunen ikusgarritasuna areagotu, haien arteko ezagutza sustatu eta euskarazko zientzia-produkzioa areagotzea. Azken bi edizioetan ehundik gora artikulua jaso ditugu, eta abenduan zabaltu dugu 3. ediziorako artikulua jasotzeko deialdia.

Koldo Mitxelena beka

Errenteriako Udalak, UEUren laguntzarekin, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta emakumezkoen ikerketa sustatzeko, Errenteriaren inguruko ezagutza areagotzeko eta Koldo Mitxelena errenteriar filologoa omentzeko, haren izena duen ikerketa-bekarako deialdia egiten du 2018an. Bekaren zenbatekoa 15.000 eurokoa izan da. Deialdi honetan Literatura, Hizkuntzalaritza eta Antropologia ikerketa-esparruak izan dira ikerketa-gai. Beatriz Gallego Muñozek irabazi du beka: Zeinek esango zigun... Errenteriako helduen alfabetatze-prozesua, bizi izan zutenen diskurtsoen azterketatik (1960-1980).

Buletin akademikoa jarri dugu martxan

UEUren jarduera akademikoa bizi-bizia da eta informazio hori galdu ez dadin butlein akademikoa jarri dugu martxan aurten. Horren bidez, UEUK esku artean duen jarduera akademikoa gure inguruko komunitateari zabaltzen diogu bi asterik behin; informazioa optimizatu eta fidelizatzeko xedez.

Argitalpengintza

10 Liburu berri argitaratu ditugu

Hauek dira aurten argitaratu ditugun liburuak:

- Bai, jauna, bai: fisika euskaraz! Askoren artean.
- Itzalitako kalabazen berpiztea. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa. Jaime Altuna eta Josu Ozaita.
- Iktusa. Aro berri bat. Maite Martinez eta Amaia Muñoz.
- Nazio-markagintza. Nola transmititu gure balioa. Editorea: Naroa Jauregizuria.
- Esku ikusezinaren itzal luzea. Ekonomialarien erretorikaren kritika. Joseba Permach.
- Plauto. Militar harroputza. Gidor Bilbao, Paula Garcia, Maialen Utrilla.
- Matematikaren didaktika. Estatistika eta geometria Lehen Hezkuntzako irakasleentzat. Jaione Abaurrea, Aitzol Lasa.
- Giza histologia medikoa. Edurne Alonso, Iker Badiola.
- Lurraldea eta Hizkuntza IV. Jardunaldiak: Arnasguneen prebentziotik garapenera. Editorea: Anartz Ormaza.
- Komunitatea hats-bahitua. Hitzunaren trauma soziolinguistikoa: diagnosia eta aringarriak. Ainize de Madariaga.

Uztaro aldizkaria

Giza eta gizarte-gaiak lantzen dituen aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu aurten (104-107 zenbakiak).

Aldiri aldizkaria

ALDIRI. Arkitektura eta Abar aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu:

- Aldiri 33. Topaketen kartografia.
- Aldiri 34. Bestelako arkitektoak.
- Aldiri 35. Eraikitzearen ekonomiaz.

- Aldiri 36. Sitopia.

Osagaiz aldizkaria

UEUk eta OEEk iaz martxan jarri zuten Osasun Zientzien aldizkari elektronikoa da Osagaiz. 2018an zenbaki hauek kaleratu ditugu:

- Zenbaki berezia: 28. Osasun Biltzarra: komunikazioa-inkomunikazioa OSAGAIZ.
- 2. urteko lehen zenbakia.
- 2. zenbaki berezia: Osasun Zientzietako Ikertzaileen III. Topaketak.
- 3. zenbaki berezia: Osasuna eta hizkuntza: erronkak eta aukerak.
- 2. urteko bigarren zenbakia.

Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsak

UEUk liburugintzako deialdia egin du maiatzean. Deialdiaren xedea euskarazko unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzea da, eta edukien kalitatea bermatuko duen bide eraginkorra proposatzea. Tamalez, ez da proposamenik aurkeztu.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, UEUk unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsaren deialdia egin du. Poltsa bakoitzaren iraupena gehienez urtebetekoa da eta diru-zenbatekoa 1.000 eurokoa. Jakintza-alor guztietara irekita dagoen deialdia da. Bi proposamen aurkeztu dira eta bat esleitu: Argi-izpiak txarrantxen artean: 16 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko. Liburuaren koordinatzaileak: Maria Ruiz Torrado, Oihana Etxebarrieta Legrand eta Laura Vara Jimenez.

Buruxkak liburutegi digitala

Buruxkak liburutegi digitalaren helburua da UEUk argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoan unibertsitario euskaldunei eskaintzea, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten. 2018an zehar, edukiak online jartzeaz gain, gure liburu eta



artikuluen egileei elkarrizketak egin dizkiegu: Gidor Bilbao, Amaia Muñoz, Naroa Jauregizuria, Joseba Permach, Jaime Altuna eta Josu Ozaita, Ianire de Andres, Nahia Idoiaga eta Maitane Belasko.

Sarako azokan egon gara


Urtero bezala, Sarako azokan egon gara apirilean gure argitalpenak ezagutzera emateko asmoz.

Jose Ramon Etxebarriaren omenezko liburua argitaratu dugu

UEUk Jose Ramon Etxebarria fisikari, ingeniari, irakasle, testu-zuzentzaile eta UEUkidearen omenez liburu bat argitaratu du aurrean: Bai jauna, bai: fisika euskaraz! Artikulu zientifikoek eta gorazarrekoek osatu dute argitalpena, eta udako ikastaroen hasierako jardunaldian eman diogu omenduari eta aurkeztu dugu publikoki. Liburua eskuratzeko UEUko bazkideei eskaintza berezia egin diegu.

Durangoko azoka #53DA

53. edizioa izan da Durangokoa, eta urtero bezala, UEU bertan izan da. Azoka euskarazko produkzio idatzian nahiz diskogintzan erreferentziala da. UEU unibertsitate-mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea. Liburuak saltzea baino areago UEU eta haren lana ezagutaraztea da gure helburua azokan. Betiko moduan, liburu-egileek, UEUkideek eta lantaldeak bete dituzte txandak. Era berean, aurrean hiru liburu eta ARTIZARRAren aurkezpenak egin ditugu: Esku ikusezinen itzal luzea. Ekonomialarien erretorikaren kritika; Nazio-markagintza. Nola transmititu gure balioa eta Itzalitako kalabazen berpiztea. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa.



Informazio- eta komunikazio-teknologiak

Artizarra sare soziala jaio da

UEUK sare sozial tekniko-profesionala abian jarri du aurtan: ARTIZARRA. Maiatzaren 9an BilboRock aretoan egindako ekitaldiaren bidez aurkeztu dugu publikoki. Ekitaldian Iñaki Alegriak, UEUko zuzendari ohiak; Itziar Garate, Nagore Elu eta Xabier Landabidea ikertzaileek; Oihan Indart dantzariak; XanO musika-taldeak eta Idoia Torregaraik parte hartu dute.

INGUMA datu-basean oinarritzen da eta LinkedIn sare profesionala zein Google Scholar, ORCID edo Research Gate ikertzaileen guneak ditu inspirazio-iturri. Komunitate zientifiko-tekniko euskalduna ezagutaraztea eta ikertzaile zein profesionalen saretzean laguntzea da haren helburu nagusia.

Unibertsitatea.net ataria, azalberrituta

Ataria sortu zenetik 10 urte pasa diren honetan, Unibertsitatea.net -en itxura berritu dugu, irakurterrazagoa eta erakargarriagoa bihurtzeko helburuz. Horretaz gain, euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du Unibertsitatea.net atariak, eta hamabostero, atariko Zitzu Bizian albistegian, euskal ikertzaile gazteak elkarriketatzen jarraitzen dugu. Hainbat dira elkarriketatu ditugun ikertzaileak: Itziar Mujika, Naima El Bani, Juanmari Agirreurreta, Elisa Sainz de Murieta, Maite Goiriena, Iratxe Perez, Naiara Barrado, Xabat Oregi, Irati Romero, Amaia Jauregi eta Nekane Miranda.

TESIKER egitasmoa

INGUMAN katalogatutako 713 tesietatik, Tesiker egitasmoaren bitartez, 528 sarean eskuragarri daude Euskarazko Doktorego Tesien Datu Basean elkartuta. Euskaraz egin diren tesien % 74. Egitasmoaren jardunak bi mutur ditu: tesi zaharrak digitalizatzea eta gordailu digitaletako tesiak biltzea. 2018an 7 tesi digitalizatu eta gordailuetatik 50 tesi bildu dira.



#TXIOTESIA4 lehiaketa

Unibertsitatea.net atariak laugarren aldiz antolatu du #Txiotesia lehiaketa. Ekimen honen helburua da ikertzaile euskaldunak eta beren lana ezagutzera ematea. Lehen saria Naima El Bani Altunarentzat izan da Ipar Atlantikoko eta Artikoko foraminifero bentoniko ikerketa 6 txiotan modu ulergarrienean laburtzeagatik, eta bigarren saria Juanmari Agirreurretarentzat izan da, J.P. Sartrearen diskurtso teorikoko fikzioa tesiaren azalpen originalena egiteagatik. Edizio honetan 34 ikertzailek parte hartu dute, eta sari-banaketa Bilboko BIRA Kultur Gunean egin dugu. Bertan parte hartu dute Itziar Garatek, Rakel Gamitok, Jesus Mari Txurrukak, Ainhoa Latatuk eta Zuriñe Etxanobek.

INGUMA datu-basea

INGUMAK 18. urteko ibilbidea egin du, egitasmoa hazten eta aberasten jarraituz. 2018an, besteak beste, 531 egile berriren produkzioa barneratu eta 1.297 erreferentzia katalogatu ditugu, horietatik % 54 idatzizko lanen datuak izan dira. INGUMAN 41.658 produkturen datuak (liburuak, itzulpenak, artikulak, liburu-atalak, hitzaldiak, ikastaroak...) ditugu eskura eta 17.740tik gora erreferentziaren edukia zuzenean kontsulta daiteke.





Baionan

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

Bilbon

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
Idazkaritza@ueu.eus

Eibarren

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Iruñean

Joaquin Beunza 13, behe
31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus